#76
DOAN

2017· 11 · 02
WWW.AIARALDEA.EUS

AIARALDEA hemen

LEIRE MARTIN CURTO:
“Anorexia eta bulimiarekin izandako bizipenak islatu ditut eleberri grafikoan” 14 or.

ALFREEDO:
Larunbatean sartu beharko da Alfredo Remirez espetxean 2 or.

Ehunka langileren bizimodua, kolokan

ARAZOAK ENPRESETAN
TUBOS REUNIDOSEN LANGILEAK KALERATZEARI EKIN DIOTE. CEL ETA GOMETEGUI HARTZEKODUNEN KONKURTSOAN DAUDE 8-9 or.

HERRIZ HERRI 2

Haur transexual baten kasua jendarteratu dute
Haur transexual baten gurasoen hitzaldia antolatu dute Aiaran, euren semearen egoera zabaltzeko. 2

Errigorako saskiak eskuratzeko aukera
Nafarroako tokiko produktuekin osatutako saskiak banatuko dituzte eskualdean, euskararen alde. 3

KULTURA 15

Dokumentala plazaratu dute Kepa Sojok eta Sonia Paciosek
Ronda de poniente da filmaren izena eta Leongo Posada del Bierzo herrian grabatu dute. Frankok bertan egindako bisita baten nondik norakoak jorratzen ditu lanak. 15

Euskal Herriko Bertso Udalekuen XX. urteurrena
Euskal Herriko Bertso Udalekuen XX. urteurrena ospatuko dute Amurrion, Txapelketa Nagusiaren finalaurrekoaren egunean. 16

KIROLA 20

Mendi maratoia egingo dute lehenbizikoz
Azaroaren 12an izango da zita, Urduñan. Gualdetxu MBTTk antolatu du egitasmoa. Hainbat ibilbide eta modalitate egongo dira. 20

herriz herri

Aiara

Transexualitateari buruzko hitzaldia egin dute guraso batzuek, euren semea dela eta

Haur transexualitatea landu zuten Luiaondon eskainitako hitzaldian. **Jon Catalan**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Haurren transexualitatea lantzeko hitzaldia egin zuten iragan ostiralean Luiaondon. Chrysallis elkartearekin batera antolatu zuten solasaldia guraso batzuek, euren semearen kasua plazaratzeko. "Gure seme sexuatua -hitz hori erabiltzen da umea jaiotzean sexua zakila edo aluaren arabera ezartzen zaionean- orain dela 9 hilabete arte neska ederra zena, mutila da orain; ederra baita ere. Bai, alua duen mutila da", adierazi diote Aiaraldea hedabideari gurasoek. Aiaraldea.eus atarian dago irakurgai gutun osoa.

Gurasoek familiari eta ikastetxeari eman dizkiete eskerrak: "Aitortu behar dugu prozesu guztia sinestezina izan dela. Ez dugu une txarrik bizi izan, bide garbia izan da, arrakalarik gabekoa. Eskerrak eman behar dizkiogu familiari eta gure herriko hezkuntza zentroari, buru ireki eta zoragarriz osatuta baitago. Badakigu egon direla gaizki pasa duten haurrak, baina ez da gure kasua".

Esperientziaren nondik norakoak azaldu zituzten solasaldian, baita bidalitako oharrean ere: semeak epaimahai mediko eta psikiatriko baten aurretik igaro behar izan du, egokitasun ziurtagiria eskuratzeko. "Gure auzokideek gu ulertu eta bistaratzeko antolatu dugu hitzaldia, ez dugu ezkutatuta egon nahi. Gustuko dugun moduan bizi nahi dugu, duintasunez, traba moralik gabe, eta noski, erasorik gabe", erantsi dute. Hala, semearen identitate "berriaz" mintzatu ziren.

Gaur egun, Euskal Herriko 50 umerekin ari da egiten prozesu bera Chrysallis elkartea. Euren semearekiko begirada aldatuta, "askoz pozago" ikusten dute haurra. Hormonazioa lortu ondoren afera burokratikoei helduko diote, "Osakidetzak txartel berria bidali arte".

Oinarria "sendo" azaleratuta, animatuta dago familia: "Pozik gaude hitzaldiko asistentziarekin. Kontuan hartuta Luiaondon izan zela, normalean baino jende gehiago etorri zen. Hori bai, batez ere lagunak, senideak eta inplikatuak egon ginen". Aurrera begira, transexualitatea jendarteratzen jarraitzea da haien asmoa.

Administrazio-batzarrek aurrekontuetan parte hartzeko ordenantza onartu dute

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ordenantza plazaratu du Aiarako Udalak, "Administrazio-batzarrek udal-aurrekontuen diseinuan parte hartzea" ahalbidetzeko. Udal-gobernuak adierazi dutenez, hainbat abantaila ekarriko du ordenantza berriak.

Alde batetik, handitu egingo da administrazio-batzarrek udalaren diru-laguntzen bidez jasotzen duten diru-kopurua. Kontzejuetako arduradunen lan karga arinduko dela ere uste du tokiko erakundeak, "ez dituztelako faktura edo justifikante guztiak bildu beharko udalaren laguntza jasotzeko".

Hortaz gain, eragile bakoitzaren "finantza baliabideak" hobeto planifikatzea erraztuko du araudiak, "lehenago jakingo dutelako urte bakoitzean jasoko duten diruaren zenbatekoa".

Amurrio

Larunbatean sartuko dute Alfredo Remirez espetxera

Alfredo Remirez, bere alde Bilbon eginiko ekitaldi batean.

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Azaroaren 4an aurkeztu beharko da Alfredo Remirez amurrioarra espetxean. Urte beteko espetxe-zigorrari egin beharko dio aurre 2005eko Amurrioko Jaietan dispertsio politika salatzeko ekimen batean parte hartzeagatik.

Bideo bidez zabaldu du mezua Remirezek. Espetxeratze data zabaltzeaz gain, datorren azaroaren 3an Amurrion burutuko den manifestazioan parte hartzeko deia zabaldu du. Juan Urrutia plazatik abiatuko da mobilizazioa, 19:30ean. Remirez bertan egongo da, "jende guztia agurtu eta emandako maitasun eta elkartasun guztia eskertzeko". Hala ere, amurrioarrak azpimarratu du berea ez dela "agur" bat, "gero arte" bat baizik, "kaleak betetzen jarraitu behar baitugu axola digun horren guztiaren alde protestatzeko".

Mendiguren bidean eta herriko mendietan hainbat esku hartze egingo du udalak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Amurrioko Udalak zenbait obra aurreikusi du landa eremuan. Hasteko, Mendigurengo bidea konponduko dute, urte luzez mantenu lanak ez baitira egokiak izan.

Aldaiturriaga bidetik eta Agirre baserriaren arteko zatian, drainatzea berritzeko lanak eta azaleko birprofilaketa -lanak egingo dira urtea bukatu baino lehen. Aurrekontua 15.999,83 eurokoa da.

Hainbat lan mendietan

Abeltzaintza jarduera eta herritarren segurtasuna bermatzeko hainbat ekintza egingo dute ere. Alde batetik, itxitura perimetral berria instalatuko da Peña Negra Elexazar izeneko mendi publikoaren hegoaldean, 7.000 euroko aurrekontua baliatuta. Pasagune kanadarra jarriko dute baita ere, itxiturari laguntzeko. 8.470 euro bideratuko dituzte horretara. Bestetik, hormigoizko aska artifiziala jarriko dute Peña Negrako bazkalekuan, 2.000 euro erabilita.

Naturbideetan bi pasabide

Halaber, udalerriko mendietako naturbide edo bidegorriei dagokienez, bi igarobide eraikiko dira Mariaka eta Altarreketa errekek okupatutako espazioan, horietatik bizikletak nahiz oinezkoak igaro daitezen. Bi pasabideak eraikitzeko inbertsioa 11.146,52 eurokoa izango da.

herriz herri

Aiaraldea

Nafarroa Hegoaldeko euskalgintzarekiko elkartasuna bikoiztu nahi du Errigorak

Karpa jarriko dute igandean Amurrion, ekimena jendarteratzeko. **Errigora.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Duela lau urte sortu zen Errigora ekimena Nafarroa Hegoaldean. Bi afera nagusiri erantzun nahian sortu zen ekimena: Nafarroa Hegoaldeko euskararen egoerari heldu eta bultzada emateko alde batetik, eta bestetik, Erriberako nekazaritzaren gainbeheraren aurrean alternatiba berri bat sortzeko.

Izan ere, Euskal Herrian Erriberako nekazarien produktuz hornitutako saskien salmentarekin ateratako diruaren %25 Nafarroa Hegoaldeko euskalgintza sustatzera bideratzen du Errigora ekimenak. Ekarpen ekonomiko horrekin inguruko ikastolak, hezkuntza publikoko D ereduko matrikulazio kanpainak edota euskaltegiak lagundu eta indartu ditu egitasmoak. Aurtengo lehenengo kanpaina urriaren 24an abiatu zuten, "Nafar Hegoaldeko uzta euskarari puzka" lemapean. Aurten Nafarroako nekazarien produktuz betetako 6.000 kutxa baino gehiago prestatuko dituzte. Errigoraren filosofiari jarraiki, hiru lan egun antolatuko dituzte nekazari eta ekoizleen produktuak bildu eta kutxetan sartzeko. Azaroaren 14an bukatuko dute kanpaina.

Aiaraldean ere bere ibilbidea jorratu du Errigorak. Azken lau urteetako garapena oso positibotzat jo dute dinamika honen eskualdeko sustatzaileek. Urterik urtera harrera hobea jasotzen ari dira. Egun, saski eskaerari erantzuteko azpiegitura eta laguntzaile sarea hedatu beharrean daude. Hurrengo erronka jarri diote euren buruei: Errigora ekimena indartzea eta espazio berrietara zabaltzea. Aiaraldea Kooperatiba Elkartea aktiboki arituko da kanpainan, besteak beste. Aiaraldean 200 saski banatzera heldu ziren iaz. Aurten zifra hori bikoiztu nahi dute, guztira 400 saski banatuaz. Ekimenaren berri emateko karpa jarriko dute Amurrioko Juan de Urrutia plazan datorren igandean, Gorobel Mendi Ibilaldia aprobetxatuz.

Saskiak internetez zein eskuz eskatu daitezke. Eskuz eskatzeko zerrendak eskualdeko hainbat txokotan jarriko dituzte eskuragarri:

INTERNET BIDEZ:
WWW.ERRIGORA.EUS
Jasotzeko puntua:
Aiaraldea Kooperatibaren pabilioia (Laudioko Industrialdea 4-8, Karrika jatetxearen ondoan)

ESKUZ ESKATZEKO:
Amurrion:
AEK-ko euskaltegia
Aresketa ikastola
Txokogorri elkartea
Laudion:
AEKko Berbots euskaltegia
Laudio ikastola
Arrañope taberna
Eska tailerra
Aiaraldea hedabidearen bulegoa
LABen bulegoa
Okondon:
El meson taberna
Orozkon:
Ikusi makusi denda
Gure arraindegja
Urduñan:
Herri eskola
Mugalde elkartea
Meli's taberna
Aiaran:
Etxaurren ikastola

Dependentzia duten herritarrentzako plaza berriak sortuko ditu Aldundiak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Ramiro Gonzalez Arabako Foru Aldundiko ahaldun nagusiak jakinarazi du 6 heldu gehiagorentzako tokia sortuko dutela Gizarte Ongizate Zerbitzuan. Horrez gain, aniztasun funtzionala duten herritarrentzako 15 plaza berri egin nahi dituzte. Izan ere, gaur gaurkoz, Gasteizera jo behar dute aiaraldearrek zerbitzua jasotzeko.

Bestalde, bailarako ASASAM elkartearen sinadura bilketaren harira, Gonzalezek adierazi du buruko osasun "arazoak" pairatzen dituztenentzako eskaintza areagotu nahi dutela eskualdean, Arabako hiriburura joatea ekiditeko.

Edonola ere, EAJko ordezkariak azaldu du horretarako derrigorrezkoa izango dela Foru Aldundiko oposizioko talde politikoren batek babestea beren aurrekontu proiektua.

Adi Emakumeak eta Matxintxu prest indarkeria matxistaren aurka

Testua
Aitor Aspuru Saez

Urduñako Adi Emakumeak eta Orozkoko Matxintxu elkarteek parte hartzen dute Tartekari Sarea programan. Horren helburua da detektatzea eta laguntzea bikotekidearen edo bikote ohiaren aldetik bortizkeria pairatzen duten emakumeak.

Elkarte horietako emakumeek boluntarioki hartuko dute parte sarean, tratu txarrak jasotzen dituztenei babesa, informazioa, orientazioa eta laguntza eskainiaz, adituak diren gizarte zerbitzuetara jotzeko aukera izan dezaten.

Modu horretan, hitz egiteko topagune babestua errazten dute, konfidentziala eta pribatua, emakumea onartuta sentitu dadin. Bestalde, profesional espezializatu talde baten trebakuntza eta aholkularitza daukate. Sarea 70 eragilek osatzen dute eta Bizkaiko 37 elkartek bat egin dute ekimenarekin. Xedea da bortizkeria matxistarekin amaitzea eta emakume eta gizonezkoen arteko parekidetasuna sustatzea.

Bi elkarteek telefono zenbakiak dituzte nahi duenak dei dezan laguntza eske edo informazioa jasotzeko. Orozko Matxintxuren kasuan 688 727 188 da zenbakia eta Adi Emakumeaken kasuan 688 727 187.

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
1945. urtetik Laudion zurekin
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00

PADI PROGRAMA

INPLANTEAK

3D ERRADIOGRAFIAK

USHUAIA
Dionisio Aldama, 20
(Geltokiaren aurrean) AMURRIO
Tel. 945 89 08 41
Asteartetik ostiralera: 9:30-19:00 (ez dugu eguerdian ixten) Larunbatak: 9:00-14:00etara
ILEAPAINDEGI MISTOA · EDERTASUNA · LURRINDEGIA · OSAGARRIAK

Ileko arazoak?
Ile-galtzea?
Zolda, koipea edo azkura?
KONTSULTA eta DIAGNOSTIKOA
DOHAINIK, MIKROKAMARA BIDEZ
Eskatu hitzordua 945 89 08 41
BEHIN BETIKO DEPILAZIOA - SAUNA - SOLARIUMA
Ushuaia Peluquería & Estética/Perfumería

herriz herri

Arrankudiaga-Zollo

Arrankudiaga-Zolloko karobiak berriz argitara

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Hainbat karobi topatu dituzte, horietako batzuk oso egoera onean. **Txomin Egiluz**

Arrankudiaga-Zolloko bizilagun talde batek herrian dauden karobiak bilatu eta katalogatzeari ekin dio. Markel Iturrizar eta Txomin Egiluzek egin dute ikerketa. Hala ere, azterketarekin lanean dihardutenez, aurrerago emango dituzte zehaztapen guztiak. Oraingoz, gaur arte aurkitutakoen berri eman dute, laster hasiko baitira konpontzen.

Antzina karea eskuratzeko erabiltzen ziren erakinak ziren Karobiak. Karea oso produktu erabilia zen baserrietan, hala nola, zuritzeko erabiltzen zen, edota ortuko ongarri gisa. Karea kareharriaren egoste prozesutik lortzen zen. Horretarako bi-hiru metrotako zilindro formako labeak eraikitzen ziren; karobiak, hain zuzen.

Gehiago daude

Arrankudiaga-Zolloko bizilagunak herriko karobiak bilatzen dabiltza. Ondo kontserbatutako bi gune aurkitu dituzte eta sastraka artean erauzitako beste bat. Zuloak ez ezik, karobietarako beharrezkoa zen kareharri meatze batzuk ere topatu dituzte. Ikaztegien inguruan, Arbideko zubi ondoan eta Aranzazukoerreka eta Urgoso erreken aldean egin dituzte aurkikuntzak.

Ez dituzte, ordea, euren datuen arabera, zeuden karobi guztiak antzeman. Antza, mota horretako zortzi elementu baino gehiago egon beharko lirateke herrian. Uribarri, Larunbe eta Uriola auzoetan hasiko dira orain bilatzen. Aurkitutako karobiak zaharberritzeko lanak hasiko dituzte orain.

Auzolanean atonduko dute Zolloko herrigunea

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Azaroaren bigarren asteburuan izango dira Zolloko sanmartinak. Ohiturari jarraiki, aurten ere auzolanean prestatuko dituzte hainbat gune. Garazi Abrisketa Zolloko Juntako kidearen esanetan, eliza inguruak egokituko dituzte. Egitekoen artean daude belarra moztea edota eremua txukuntzea. "Uda baino pixkat lehenago eta jaien atarian egiten ditugu auzolanak", adierazi du.

Azaroaren 5ean jarri dute hitzordua, 9:00etan. Kanposantua garbituko dute, Domusantu egunagatik. Bataz beste 15 bat lagun elkartu ohi dira, "gehienak gizonak". Hori dela eta, dei berezia egin diete emakumeei, herri dinamiketan parte har dezaten.

Okondo

10 hilabeteko kartzela zigorra eta 100.000 euroko isuna 25 zaldi gosez hiltzeagatik

Testua
Aitor Aspuru Saez

Hedabideek jakinarazi dute Arabako Epaitegiak 3 lagun zigortu dituela 2014an 25 animalia gosez hiltzeagatik Okondoko COBAR Zalditegian. Epaiketa ez da egin; akordioaren bitartez onartu dute zigorra.

10 hilabeteko kartzelaratzea eta 100.662 euroko isuna onartu dituzte 3 akusatuek, animalien aurkako tratu txar jarraitua gauzatzeagatik. Laugarren epaitu batek absoluzioa eskuratu du. Dena den, zigortuak ez dira kartzelara joango. Edonola ere, hurrengo bi urteetan ezingo dute abereekin erlazionatutako negoziorik izan. 2014an plazaratu zen kasua, SOS Bilbao elkartearen salaketa baten bidez.

Irisgarritasuna hobetzeko obrak abiatu dituzte

Espaloietako oztopo arkitektonikoak kenduko dituzte. **Okondoko Udala**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Okondoko Udalak herriko espaloietan hainbat lan abiatu du irisgarritasuna hobetze aldera. Irabien eta Villachica kaleetan egingo dira obrak.

34 pasabide egokituko dira, lauza botoidunak jarriz eta oinezkoen igarobideak berriz margotuz. Udalak beste 8 igarobide berri aurreikusi ditu, eta horietan ere lauza botoiduna jartzeko asmoa dauka.

Guztira 44.854 euroko inbertsioa ekarriko dute aldaketek. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Sailaren eta Arabako Foru Aldundiaren obra txikietarako planaren bidez finantzatuko da egitasmoaren % 70.

JAR EZAZU ZURE IRAGARKIA hemen

Komunikazio kanpaina bat martxan jarri nahi duzu?
Zure produktu, zerbitzu edo ekitaldiak iragarri nahi dituzu?

idatzi publizitatea@aiaraldea.eus helbidera
edo deitu 688 625 394 zenbakira

Eskualdean zabalpen handiena duen komunikabidea

2 astean behin 10.000 ale banatzen dira Aiaraldea osoan
(Amurrio, Atziniega, Urduña, Laudio, Okondo, Aiara, Orozko, Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldo)

Urduña

Udaletxeko ikur frankista kenduko du udalak



Udaletxeko balkoiko horman dago ikurra. **Urduñako Udala**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Urduñako Udalak frankismoak hirian utzitako arrastoak ezabatzen dihardu. Urriko udalbatzan iragarri zuten hurrengo pausoa: udaletxeko Jesusen Bihotz Sakratuaren irudia kentzea. Izan ere, 1938ko ekainean jarri zuten ikurra, tropa frankistak Urduñara sartu zireneko lehen urteurrena ospatzeko. Prentsa oharrean adierazi dutenez, "diktaduraren ikurtzat" jo dute.

Hilerriko 204 horma-hobi

Era berean, hilerriko 204 horma-hobi erabiltzeko aukera iraungitzea erabaki zen udalbatzan. Ez da hari berria, ekimena ekainean onartu zen. "Errepresio frankistaren biktimen gorpuzkiak lokalizatu, berreskuratu eta identifikatzeko lanak atzeratuko lituzke hilkutxa gehiago ehorzteak", argitu dute.

Erabakiaren berri ehorzte-eskubideen jabe diren herritarrei jakinarazi die aurrez udalak. Proiektuaren aurkako arrazoibideak aurkezteko epea ere zabaldu zuten, baina ez dute alegaziorik jaso. Ildo beretik, Aranzadi Zientzia Elkartearekin lanean jarraitzeko asmoa agertu dute: "2014an Urduñako kontzentrazio esparruan eta kartzelan hildako 14 biktimen gorpuak berreskuratu zituen kanposantutik Aranzadik".

Urduñako Udalak aspaldi ekin zion frankismoko sarraskiak salatzeari. 2012ko maiatzaren 31n onartu zuten memoria historikoaren adierazpena, eraikin eta espazio publikoetatik ikur frankistak erretiratzea ahalbidetzen zuena. Hala, bertako memoria historikoa berreskuratzeko konpromisoa hartu zuen tokiko erakundeak. Era horretan baliogabetu zituzten Francisco Frankori eta diktadura frankistari lotutako pertsona zein erakundeei udalak emandako dominak eta ohorezko tituluak.

Espainiako Arartekoak ez du aintzat hartu Maria Luisa Goikoetxearen kexa

Testua
Aitor Aspuru Saez

Francisco Fernandez Marugán Espainiako Arartekoak atzera bota du Maria Luisa Goikoetxearen kexa, Urduñako tren geltokiaren irisgarritasun arazoa konpontzeko Renfek lanak egiteko izapideak dagoeneko abiatu dituela argudiatuta.

Hala ere, Arartekoak gaineratu du lanak gehiegi luzatuz gero Goikoetxeak aukera izango lukeela kexa berriz jartzeko.

Goikoetxea, irisgarritasuna aldarrikatzeko protesta batean. **Urduñako Udala**

Laudio

Atzera bota dituzte udal gobernuak proposatutako ordenantzak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ordenantzak izan dituzte hizpide Laudioko urriko udal osoko bilkuran. Udal gobernuak proposamena aurkeztu zuen bertan. Zergak eta ordenantza fiskalak dauden moduan mantentzea planteatu zuen eta hiru berri sortzea: padel pistaren erabilerarena, autokarabanen aparkalekuarena eta auto elektrikoei hobaria eskaintzekoa.

Proposamenak, baina, ez zuen aurrera egin, EH Bildu izan baitzen alde bozkatu zuen bakarra. OMNIA, PP eta EAJk aurka bozkatu zuten, eztabaidarik ahalbidetu ez zela eta puntu batzuekin ados ez zeudela argudiatuta. PSE abstenitu egin zen.

Udal gobernuak gainontzeko talde politikoen jarrera salatu zuen, OMNIArena bereziki: "Ados ez zeuden puntua kendu genuen, eta hala ere aurka bozkatu zuten".

Sei ordu iraun zuen asteleheneko bilkurak, gaueko hamabietara arte, alegia. Hainbat gai landu zituzten, baina azken bi mozioak jorratu gabe utzi zituzten, denbora faltagatik.

ETXEBIZITZA SUSTAPENA UGARTEN

3 gelako etxebizitzak 135.000 eurotik aurrera kooperatiba-erregimenean.
Informatu zaitez!
Previsional
www.etxaurre.com
94 672 85 50
Zumalakarregi 38, Laudio
etxaurre higiezinen agentzia

herriz herri

“Leku guztietan jaso behar ditugu sinadurak, udaberrian herri galdeketa deitzeko”

LAMIA ARCAS, ANDONI ARRIBAS eta JOSE MARI GUTIERREZ GURE ESKU DAGO PLATAFORMAKO KIDEAK DIRA. SINADURA BILKETA ABIATU DUTE LAUDION, AMURRION, OKONDON, AIARAN ETA ARTZINIEGAN.

Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

Sinadura bilketa abiatu duzue, zein da helburua?

Jose Mari Gutierrez: Hasteko, azaldu behar da ekimen honetarako Gure Esku Dagok izen berezia hartu duela, Aiaraldea Bat, hain zuzen. Aiarako Kuadrillako 5 herrietan gaude antolatuta: Laudion, Amurrion, Aiaran, Okondon eta Artziniegan. Leku guztietan jaso behar ditugu sinadurak udaberrian herri galdeketa deitzeko.

Horretarako zenbait baldintza jarri ditugu. Garrantzitsuena da aurretik herritarren % 10en babesa lortu behar dugula Laudion zein Amurrion, eta % 15ena gainerako herrietan.

Hala ere, 5.000 sinadura eskuratu nahi ditugu. Orain arte leku txikienetan oso ondo goaz: Aiaran, Artziniegan eta Okondon bete dira kopuruak, baina lanean jarraituko dugu. Laudion eta Amurrion 1.000 sinadura inguru dauzkagu herri bakoitzean. Edonola ere, Laudion ia 2.000 eskuratu behar ditugu. Bi aste ditugu oraindik, eta ondo doa dena. Hala eta guztiz ere, jendea animatzen jarraitu behar dugu, guregana etor dadin.

Nolakoa izaten ari da harrera?

Lamia Arcas: Auzoz auzo egon gara lanean, herritarron borondatearen bidez. Esaterako, Aretan triki poteoa antolatu zuten, eta hainbat sinadura jaso zuten. Latiorroko Jaietan giroa profitatu eta sinadura ugari jaso zituzten ere bai. Gazteak ere ari dira lanean, eurekin bildu ginen eta zerbait antolatuko dute. Apurka-apurka goaz. Batez ere, kalean eta egoitzetan ari gara lan egiten eta harrera tantaz tantakoa da. Ezin dugu esan ilarak sortzen ari direla, baina jendea pixkanaka barneratzen ari da egitasmoa. Momentuz informazioa zabaltzen ari gara eta harrera ona izaten ari da leku guztietan.

Zeintzuk dira baldintzak sinatzeko?

J.M.G: Aipatutako bost herri horietako batean erroldatuta egon behar da sinatzailea, eta edonon sinatu dezake. Adina ere bada beste baldintza bat. Azaroaren 15a baino lehenago 16 urte bete behar dira, egun horretan bukatzen baita epea. Herri galdeketaren egunean ere beharrezkoa izango da 16 urte izatea bozkatzeko. Hortaz, gerta liteke gazteren batek ez izatea aukerarik sinatzeko, baina bai botoa emateko.

Non sinatu daiteke?

Andoni Arribas: Laudioko Zumalakarregi etorbidean egoitza dago eta baita Amurrion ere. Oro har, jendetsuak izaten ari diren ekitaldietan ari gara parte hartzen; jaietan adibidez.

J.M.G: Egoitzan gutxienez 20 sinadura inguru jasotzen ditugu egunero. Gainera, hainbat elkarteren eta ELA eta LAB sindikatuen laguntza daukagu.

L.A: Laudion astelehenetik ostiralera arte gaude egoitzan 18:00etatik 20:00etara, eta 12:00etatik 14:00etara asteburuetan.

Kataluniako *Procésak* indarrak eman dizkizue, edo alderantziz?

J.M.G: Katalunian gertatu denaren ostean (elkarrizketa independentzia deklarazioa baino lehen egin zen), aldatu da Gure Esku Dagoren gainean nuen ideia. Nortzuk ez dute lan egingo erabakitzeko eskubidearen alde? Erabaki dutenek. Batzuek erabaki dute duela asko hemen ez dela ezer aldatu behar; edo, moldatzekotan atzera joko dugula. Ezinezkoa da beraiekin zerbait adostea, uste baitute ez dela ezer aldatu behar. Hori ez da jarrera demokratikoa. Demokraziaren kontrako jarrera horri, gainera, bortizkeria gehitzen badiozu, horrek izena dauka: faxismoa. Gertatutako guztiarekin, prest bazaude demokraziaren alde lan egiteko, pasatutakoak pizten zaitu, baina beldurra sortzeko ere egin dute. Adibidez, sinadurak jasotzean, gogoz etortzen dira batzuk Kataluniako *Procés*arekin nolabaiteko zerikusia duelako, baina beste batzuek galdetzen dute ea hemen bertan gertatutakoa errepikatuko den. Hori da beldurra.

A.A: Kataluniak bidea egin du norabide horretan eta orain Espainiar estatu osoan ikusten da legedia aldatu beharra dagoela, ez bakarrik Katalunian edo Euskal Herrian. Herriaren borondatea jasotzeko Konstituzioa aldatu behar da, baina ez kasu honetan, baizik eta guztietan. Ez dakit zer gertatuko den Katalunian, baina independentzia ez da auzia, erabakitzeko eskubidea baizik. Nik uste dut lortuko dela eskubide horrek lekua topatzea legedian.

L.A: Nire aldetik, uste dut gauza garrantzitsua ikasi behar dugula Kataluniako prozesutik. Bertan finkatu dituzte komunean dituzten helburuak, ez kontrakoa.

Esparru instituzionalean egoera ona izan arren, demokrazia bi bidek sortzen dute, herritarrenak eta erakundeenak, eta bateratuta ez badaude, ez du aurrera jotzen.

Horregatik Gure Esku Dago da giltza, bi mugimenduak batzeko. Sua piztu behar dugu Kataluniako egoera profitatzeko eta erakundeen esparruan baldintzak sortuz gero, erabakitzeko eskubidea lortzeko.

iritzia

Betiko leloaren betiko leloa

Orain dela gutxi eztabaida bat izan nuen nire herriko auzokide batekin. Esaldi batean laburtzeko, hauxe zioen: " Les dan ayudas de todo tipo y a nosotros nada". Beste tonu batekin eta hemen jarri ezin ditudan hitz batzuk erabilita esan zidan. Eta batzuk pentsatuko duzue: "Bo, el típico pureta de ideas cuadradas...". Ba, ez!

Aita arrunt bat zen, ez zaharra, ez horren gaztea. Suposatzen da garai aldakor batean bizi dela non internazionalismoak gorakada izugarria izan duen eta arrazakeria zein xenofobia atzean geratzen ari diren. Haren argudio sinpleak kontraesan amaigabe batean sartuta zeuden: "vienen a chupar del bote" mitikoa, "trabajan por cuatro duros y nos joden" esaldia... Laburbilduz, hauek argudioak badira, akabo! Egoera hau aztertu eta zuen ondorioak atera.

Nik argi daukat (eta esperientziak arrazoia eman digu): Aiaraldea etorkinekin egiten ari den lana txalotzekoa da, errefuxiatuak hartu eta laguntzeko prest egon eta egongo baita. Lasaitu egiten nau horrek. Ni eta nire familiak Amurrio herria eskertu nahi dugu, gure bizitza pixka bat errazagoa egiteagatik, Bosniako errefuxiatu bezala etorri ginenean beso zabalik hartu gintuzten pertsona guztiei. Haietako bat Alfredo "Erreharria" jauna izan zen. Momentu zaila pasatzen ari da, eta beraz jaso dezala hemendik besarkadarik goxoena.

"Nire familiaren partez eskerrak Bosniako errefuxiatu bezala etorri ginenean beso zabalekin hartu gintuzten pertsona guztiei"

AMRUDIN DRLJO DIZDAREVIC
Errefuxiatua

NEKANE ESTRELLA LEKANDA
Errefuxiatuen aldeko jardunaldien antolakuntzako kidea

Mugarik ez

Duela sei urte hasi zen guda Sirian. 400.000 pertsona baino gehiago hil dira geroztik. Milioika ihesean. Zalantzarik gabe, XXI. mendeko tragedia damugarrienetariko bat da.

Urteak daramatzagu datozen errefuxiatuentzako irtenbide duina bilatzen. Hala ere, oraindik ez diegu beharrezko erantzuna eman. Lotsagarria, nire ustez.

Bitartean, Europar Batasuneko gobernuen itsukeria handia da, baita herritar xume batzuen axolagabekeria ere. Guzti hau horrela izanda ere, itxaropentsu nabil. Herritar askoren elkartasuna ikusi dut. Aiaraldean egon diren elkartasun ekimenak honen adibide bikainak dira.

Nahiz eta askotan beldurra zabaltzen dituzten mezuak helarazi eta ezezagunari ikara izan, ez gara koldartu behar. Uneoro gogoratu nahi dut batzen gaituena askoz gehiago dela banatzen gaituena baino; eta argi daukat, munduko herritar bezala, zerbait egin behar dugula egoera tamalgarri honen aurrean, gure ardura baita.

Gudatik ihesi doazen pertsonak laguntzeko eta jasotzeko prest dagoen Europa nahi dut. Hortaz, herrietan hasi gara egoerari konponbidea bilatzen, gobernuek jakin dezaten hormak eta harresiak ez ditugula maite.

Azaroaren 4an, errefuxiatuen aldeko hirugarren jardunaldia ospatuko dugu Laudion. Beraz, oihu egin dezagun denok: Mugarik ez, elkarrekin bat gara!

"Herrietan hasi gara egoerari konponbidea bilatzen, gobernuek jakin dezaten ez ditugula maite hormak eta harresiak"



Aimar Gutierrez

? GALDERA

Zer egin dezakete herritarrek errefuxiatuei laguntzeko?

Unai
Ikaslea

Errefuxiatuak euren herrialdeetan nola bizi ziren jendarteratu beharko litzateke, gu bezalakoak direla erakusteko. Herritar gisa aurkeztu beharko genituzke, gu bezala.

Eusebio
Industria sektoreko langilea

Dirua eman, adibidez. Gure etxeetan hartu ahalko genituzke baita ere. Eurekin eralazionatu beharko ginateke sozializatzen laguntzeko. Gauza asko egin ahalko genituzke, baina oso geurekoiak gara.



Arrate
Ikaslea

Gehiago iragarri egin beharko lirateke errefuxiatuen alde egiten diren ekimenak, herritar gehiagok parte hartzeko. Eskualdean egitasmo onak egin direla uste dut.

Julia
Irakaslea

Elkartasuna adierazi, eurei gertatu zaiena guri ere gertatu dakigukeelako. Ez gara kontziente bizi duten egoeraz. Batasuna behar da gai honen inguruan sigletatik harago.

artikulua

Urte berriaren etorrera aukera paregabea izan daiteke norberaren estetika birdefinitzeko, kanpoko presio eta ereduak albo batera utzita. Aiaraldean badaude estetikaren ildo ezberdinak -orrazkera eta janzkera kasu- jorratzen dituzten hainbat establezimendu, baita moda kontuetan adituak diren blogariak ere. Adituen arabera, guzti horiek kontsultatzea lagungarria izan daiteke norberaren estiloa bilatzerako orduan.

Estetika, norberaren barnealdearen isla

Janzkera, orrazkera, makillajea... elementu askok osa dezakete norberaren estetika. **Remon Rijper, Rodrigo Tejedo eta Dithedy**

Edertasuna barruan dagoela esan ohi da. Oso baieztapen zabaldua da hori. Hala ere, irudiak sekulako garrantzia du gaur egungo gizartean, eta oso arautua dago gainera. Txikitatik hasten dira estetika jakinak indarra hartzen: mutilak urdinez eta neskak arrosaz. Adinak aurrera egin ahala arau eta eredu hegemoniko gehiago agertzen dira, emakumeen kasuan bereziki. Lodifobia da horietako bat, baina askoz gehiago daude gorputzean, janzkeran edota orrazkeran eragina dutenak.

Horregatik, geroz eta gehiago dira estetika norberaren izaeraren eta gustuen arabera moldatzea aldarrikatzen dutenak. Erabaki propioz ekitea defendatzen dute gehienek: norberaren borondatez depilatzea, ilea luze uztea, makillatzea... Norbera bere buruarekin gustura sentitzea izan behar da helburua, norbere estetika norberaren barnealdera begira osatzea, ez kanpoko presioen arabera.

Moda eta estetikaren olatuak eskualdea ere busti du. Horren adierazle dira azken urteetan tokian toki irekitako komertzio txikiak.

Eskualdeko adituak

Eskualdean badaude estetika gaietan adituak diren hainbat pertsona. Horietako bat da Maria Gaviña urduñarra. Moda eta "lifestyleari" buruzko LBD bloga sortu zuen duela zenbait urte, Antena 3 katearen laguntzarekin. "Top Style" youtube kanalean ere bideo ugari igo ditu, arropari buruzko hainbat gai lehen pertsonan kontatuz. Ildo beretik doa Goizane Aviles laudioarraren "My myself my wardrobe" (Ni neu nire armairua) proiektua. Mymyselfmywardrobe.com atarian plazaratzen ditu modari buruzko artikulu eta argazkiak, eta izen bereko kanal propioa du YouTuben, zeinetan janzkerari buruzko bideoak igotzen dituen.

"Blogarekin hasi nintzenean hobby gisa hartzen nuen", adierazi zuen Avilesek duela zenbait hilabete Aiaraldea Hemen hamabostekarian eginiko elkarrizketa batean, "baina denbora pasa ahala konturatu nintzen niretzat moda jolasteko eta norberaren izaera adierazteko tresna bat zela".

Komeni da norbere estetika osatzeko elementu guztiak (janzkera, orrazkera...) aurretik lotzea

Urte berria, estetika berria

Urte berriaren hasiera aukera ona izan daiteke ispilura begiratu eta norberaren estetikan aldaketak planteatzeko. Asko dira gabonak itxura aldatzeko baliatzen dituzten lagunak. Hala diote, behintzat, inguruko ile apaintzaileek; laneko eta lagun zein senideen arteko bazkariak direla eta, herritar ugari bertaratzen dira ilea dotoretzera.

estetika gida

ile-apaindegiak

A+A
ILE-APAINTZAILE ETA ESTILISTAK
ILERAKO ANALISIAK:
• Ile galera
• Koipea, azkura
• Ezkatatzeak
• Buruko larruazalaren sentsibilitatea
• Lodiera eta distira galtzea
...
Etxegoien 2, AMURRIO 945 892 402
www.peluqueria-amasa.com

enean ileapaindegia
ilerako tratamenduak
ELUMEN
Euskal giroa
Baia kalea, 6 LAUDIO 94 643 52 60

Ile-apaindegia
Estetika
Solariuma
Tratamenduak
Laserra
Manikura
Puntako produktu naturalekin lan egiten dugu
Arbol malato kalea 1, LAUDIO
94 672 19 08
www.peluqueriailuna.com

NUEVO STYLO
VANESA DIOS
Ile-apaindegi mistoa
Bizargintza
Ile ordeak
Asteartero, GIZONEZKOEN ILE MOZKETA 9,6€
Asteazkenero,%10eko BEHERAPENA TINDAKETAN
Aldai 2, AMURRIO · 945 10 15 33

PELUKAS
ile-apaindegia
Ile mozketa
Bizargintza
Pasa zaitez hitzordurik eskatu gabe
Astelehenetik ostiralera:
9:30-13:30 16:00-20:00
Larunbatetan: 9:00-13:00
Maestro Elorza kalea 1, LAUDIO

Izmara
Ile-apaindegi mistoa
Solariuma
Lucas Rey 3, behea
Amurrio
945 025 028
IzmaraPeluqueria

estetika-zentroak

Xaret ESTILISMO
ILE-APAINDEGIA
ESTETIKA
DIODO LASERRA
Baias 6, behea // Laudio // 94 602 76 94

Coquette Estetika
Depilazioa
(laser eta argizariarekin)
Manikura
Pedikura
Solariuma
Estetika tratamenduak
Ardantzazar 1, LAUDIO 688 73 28 60
Coquettestetika

KOLOORE ESTETIKA
Zure gorputza errespetatzen dugu, tratamendu ez-inbaditzaileak eta kosmetiko ekologikoak erabilita
Gorputz- eta aurpegi-tratamenduak
SPA erritualak
Diatermia
Diodo laserra
eta askoz gehiago!
Tel. 605 74 72 29 · Izaskun Udaeta
Larrinaga kalea 4, 5 behea - AMURRIO

larmintz estetika
Solariuma
Depilazioa
(laser eta argizariarekin)
Makillajea
Manikura eta pedikura
Zumalakarregi 30, Laudio 94 672 42 65 679 387 787

SURYA
Masaje terapeutikoak
Masaje lasaigarriak
Aurpegi-tratamenduak
Gorputz-tratamenduak
Estetika-tratamenduak
Zumalakarregi 28, LAUDIO · 944 030 362 688 887 950
www.suryallodio.es @SuryaLlodio

Profesional onenak zure zerbitzura!

erreportajea

Zerumuga iluna langileentzat

Tubos Reunidoseko langile bat, fabrikaren sarrerako zubitik trenbidera begira. **Aiaraldea.eus**

Kolokan dago eskualdeko industria sektoreko hainbat langileren etorkizuna. Tubos Reunidoseko zuzendaritzak lanpostuak suntsitzeari ekin dio, zorra murrizteko neurri gisa. Artziniegako CEL eta Laudioko Gometegi, aldiz, hartzekodunen lehiaketan daude, etorkizuna ezbaian.

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Egoera nahasia bizi dute eskualdeko hainbat enpresatan. Ehunka beharginen lanpostuak daude jokoan, eta ziurgabetasun handia dago oro har.

Argi ikusi daiteke hori Tubos Reunidosen kasuan. Hainbat neurri iragarri ditu enpresako zuzendaritzak, 300 milioi euro baino gehiagoko zorra murrizteko. Enpresa batzordeko kideek salatu dute enplegua suntsitzea dela administrazio kontseiluaren plana. Astelehenean bildu ziren zuzendaritza eta langileen ordezkariak, eta azken hauek ez ziren pozik atera bileratik. "Tramite hutsa izan zen, erabakiak hartuak dituzte jada", adierazi dute beharginek, eta nabarmendu dute 30 lanpostu suntsitu dituztela jada.

Aldi baterakoak arriskuan

Hala ere, askoz jende gehiago dago lanik gabe geratzeko arriskuan, sindikatuetako ordezkarien ustetan. "170 pertsona daude aldi baterako langile gisa. Ezingo dituzte guztiak kolpe bakarrean bota, baina enpresaren asmoa da 20-30 inguru soilik geratzea. Gainontzekoak lanik gabe utziko dituzte, gurekin 7 urte ikasten eta prestaketa jasotzen egon eta gero".

Postu finko gabeko beste 60-70 pertsona ere botako dituztela aurreikusten du langile batzordeak. "Azpi-kontratatutako hainbat zerbitzuetako (garbiketa, adibidez) arduradunak kaleratuko dituzte. Enpresa barruko langileek euren gain hartu beharko dituzte lan horiek".

Kudeaketa txarra errudun

Petrolioaren krisia da, zuzendaritzaren aburuz, enpresaren egoera txarraren kausa. Baina arrazoi nagusia beste bat dela uste dute langileen ordezkariek: zuzendaritzaren kudeaketa kaltegarria. Administrazio kontseiluak azken urteetan eginiko hainbat ekintza aipatu dituzte: 2007. urtean 170 milioi euroko mailegua eskatu zuten akziodunen artean banatzeko. Almesa enpresa 25 milioi eurorengatik erosi zuten 2010ean, aurten 2,7 milioi euroren truke saltzeko.

Iñauxa saldu izana salatu dute baita ere, "irabaziak izan zituen Tubos Reunidos taldeko enpresa bakarra izan zen iaz". Langileek argi dute: "Gestio eredu hori da enpresaren egoeraren erantzule bakarra".

Lanuzteak egiteari ekin diote Tubos Reunidoseko langileek, zuzendaritzak ezarritako neurrien aurka

CELen etorkizuna, bihar

Tubos Reunidos ez da arazo zirimola batean murgilduta dagoen bakarra. Larria da baita ere Artziniegako Cel Technologies & Systems paper fabrikaren egoera. Lantegiaren zati bat hartzekodunen lehiaketan dago, enpresak Gueñes eta Zallan dituen beste instalazioekin batera. Gaurko egunak -azaroak 2- berebiziko garrantzia du, gaur aurkeztuko baitira enpresaren balizko erosleak. Hiru izan daitezke, iturri sindikalen arabera. Hala ere, ez dakite ziur zenbat aurkeztuko diren, ez eta zer enpresa-eredu proposatuko duten

TUBOS REUNIDOS

Zorra murrizteko plana gauzatzen ari da zuzendaritza. 30 lanpostu suntsitu dituzte dagoeneko, eta aldi baterako langileen kopurua asko txikitzeko asmoa dute baita ere.

CEL

Gaur -azaroak 2- aurkeztuko dira enpresaren balizko erosleak, bakoitza bere ekoizpen planarekin.

GOMETEGUI

Hartzekodunen lehiaketan dago fabrika, 13 milioi euroko zorra pilatuta eta finantzaketa lortzeko arazo larriekin. Dituzten enkarguak egin ostean egoerak hobera egingo duela uste dute beharginek.

zehazki. Hori dela eta, etorkizun hurbil batean asko aldatu daiteke Artziniegako fabrikako beharginen egoera.

Gometegui ere kinkan

Hartzekodunen lehiaketan dago baita ere Gometegui. banketxeekin 13 milioi euroko zorra dauka, eta arazo larriak ditu finantzaketa lortzeko. Bere bi bezero nagusienak zirenek utzi egin diote eskaerak egiteari, eta enpresak geroz eta zailagoa du kreditua eskuratzea, Banco Popularren bidez lortzen baitzuen finantzaketa gehiena, eta banku hori ere hartzekodunen lehiaketan dago gaur egun.

Hala ere, langileek ez dute mobilizaziorik egin momentuz, dituzten enkarguak egin ostean egoera hobetzea espero dutelako.

Mobilizazioak

Tubos Reunidoseko langileek, aldiz, iragan asteko ostegunean ekin zioten mobilizatzeari. Asteartean ere lanuzteak egin zituzten, eta gaur jarraituko dute protestekin.

Urriaren 7 eta 9an izan zuten makinak gelditzeko asmoa. "Amortizazioak ekiditea zen oraingo mobilizazioen xedea, eta ez dugu lortu", azaldu dute batzordetik. Horregatik, etorriko denari "iturria ixtea" da duten helburua. Eskualdeko alkateekin bildu dira, eta Arabako Batzar Nagusietako Enplegu Mahaira bertaratuko dira baita ere, euren egoeraren berri emateko.

Orain arte eginiko lanuzteen balorazio positiboa egin dute langileen arduradunek. "Ona izan da lan hitzarmenaren barruko beharginen erantzuna. Produkzioa ia ehuneko ehunean gelditzea lortu da". Jendea "zain" dagoela aipatu dute. "Badakigu neurri gehiago ezarriko dituztela", ziurtatu dute, "hurrengo urteko lan-egutegian gauzak argi utziko dizkigute".

McKinsey aholkularitza enpresak diseinatutako *Plan creación de valor-transforma 360* izeneko dokumentuan zehaztu dituzte aplikatuko dituzten neurriak. Hala ere, langileek oraindik ez dakite zein den zuzendaritzaren plan zehatza. "Uste dugu mantentze-lanetako behargin kopurua % 25 murriztu nahi dutela, baina ez da oraindik jakinarazpen ofizialik egon".

Ez da egoera xamurra aurrean dutena. "Langile gazte asko daude. Kaleratze gehiago badaude ez dira sustatutako bajak izango, neurri gordin eta traumatikoak baizik". Sindikatuek gogorarazi dute enpresak Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espediente bat izan duela irekita 2016. eta 2017. urteen bitartean, baina ziurtatu dute langileek ez dutela gutxiago lan egin. "Azpikoak geroz eta gutxiago gara eta goikoak geroz eta gehiago dira. Eurek sortu dute arazoa".

Goian, Tubos Reunidos eta CELeko langileek eginiko mobilizazioak. Behean, Artziniegako lantegia. **Aiaraldea.eus**

Jabeek ez diote irabazteari utzi

Galerak izan arren, diru-kopuru esanguratsuak banatu ditu Tubos Reunidosek akziodunen eta administrazio batzarraren artean.



Pedro Abasolo da Tubos Reunidoseko presidentea. **Jose A. Del Moral**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

50,2 milioi euroko emaitza neto negatiboa izan zuen Tubos Reunidosek iaz. Enpresaren zuzendaritzaren arabera, "petrolioaren krisia" izan zen horren arrazoi nagusia, prezioak jaisteak hodien eskera txikitu zuela argudiatuta. "Sektoreak jasandako krisirik okerrenetarikoa izan da, petrolioaren prezioen beherakadak eragindakoa", adierazi zuten urte hasieran. Hala ere, nabarmendu zuten 2017 "urte hobea" izango zela, enpresak %69 handitu zuelako bere eskabide zorroa.

Milioi bat 13 kideren artean

Galerak izan arren, urtearen amaieran milioi bat euro banatu zuten administrazio kontseiluko 13 kideen artean. Une hartan enpresako presidentea zen Pedro Abasolo Albonigak jaso zuen diru kopuru handiena: 382.000 euro. Iragan astean iragarri zuten Abasolok presidentetza utziko duela, 25 urteren ostean. Guillermo Ulacia Arnaizek hartuko du postua, abendutik aurrera.

214 milioi euro zazpi urtetan

Akziodunen artean ere diru kopuru handiak banatu dituzte, Enpresa Batzordetik azaldu dutenez. "Enpresak 214 milioi euroko irabaziak izan ditu 2007. eta 2014. urteen artean eta 244 milioi euro banatu ditu akziodunen artean".

Enpresara bideratu beharreko dirua akziodunen artean banatzea leporatu diote langileen ordezkariek zuzendaritzari. 2007. urtean gertatutakoa jarri dute adibide gisa: "170 milioi euroko mailegua eskatu zuten akziodunen artean banatzeko, akzioen berrerosketa eta amortizazioa eman zedin".

244
milioi euro banatu zituen enpresak akziodunen artean 2007 eta 2014 urteen bitartean

1 milioi
euro baino gehiago banatu zuten iaz administrazio kontseiluko kideen artean

AIARALDEA GAUR

agenda

2017/11/02
2017/11/14

Mikologia zaleen hilabetea izango da azaroa

XIV. Mikoturismo Egunak antolatu ditu Amurrioko Udalak, Arriola elkartearen laguntzarekin. Azaroaren 4an aleen sailkapena eta artisau azoka egingo dituzte frontoian. Azaroaren 5ean, aldiz, onddoen erakusketa eta pintxo lehiaketako sarien banaketa egingo dituzte.

Laudioko Perretxikozaleen Elkarteak, bere aldetik, XXXVII. Udazkeneko Mikologia Astea antolatu du. Gaur -azaroak 2- hitzaldia egingo dute Zubiko etxean, ziza eta onddoek ingurugiroan duten garrantzia azaltzeko. Bihar, aldiz, erakustaldi gastronomikoa gauzatuko dute.

Larunbatean mikologia elkartearen egoitzara mugituko dituzte ekintzak, perretxiko sailkapena ezagutarazteko hitzordua baitute bertan 17:30ean.

Azkenik, igandeko 10:00etatik aurrera jarduera ugari egingo dira Laudioko Herriko plazan: marrazki lehiaketa, gastronomia lehiaketa, pintxo dastatzea eta udazkeneko mikologia erakusketa, besteak beste.

Hiruhileko feminista antolatu dute aurrenekoz

"Hiruhileko feminista" aurkeztu du Arrankudiaga eta Zolloko Udalak. Arrankudiaga eta Zolloko Emakume Sareak eta Kallerak bat egin dute ekimenarekin. Iragan ostiralean egin zuten lehen saioa, feminismoaren oinarriei buruzkoa.

Azaroaren 5ean "Autodefentsa feminista" ikastaroa eskainiko dute, zortzi ordukoa. 9:30ean elkartuko dira emakume partaideak Gizarte Etxean. Abenduaren 15ean, berriz, mahaingurua egingo dute Zollon "Mi suelo pélvico" liburuaren egilearekin, 19:30ean bolatokian.

Errefuxiatuen aldeko elkartasunak, etenik ez

Errefuxiatuen aldeko jardunaldia egingo dute datorren asteburuan Laudion. Azaroaren 4an hitzaldia eskainiko du Askapena erakunde internazionalistak, ekialde hurbileko egoeraren inguruan. Azaroaren 5erako, aldiz, egun osoko egitaraua prestatu dute egitasmoaren antolatzaileek, goizetik gauera arte luzatuko dena. Mendi ibilaldia, umeentzako jolasak, herri bazkaria, zumba eta kontzertuak egongo dira, besteak beste. Himaya elkarteari emango diote egunean bildutako dirua.

Ondarea jendarteratzeko ekintzak Orozkon

Hainbat ekintza prestatu du Orozkoko Etnografia Museoak azarorako, herriko ondarea jendarteratzeari begira. Hiru mendi ibilaldi eta paseo bat egingo dituzte Juanjo Hidalgo eta Felix Mugurutzaren gidaritzapean. Igandeetan izango dira zita guztiak, goizez.

Bizkaiko Foru Aldundia

MUSIKA

11.03
Ostirala
22:00 AMURRIO
HIBAKUSHA + NUKORE + DISASTER NOW
Sarrera: 5 euro
Burubio Kultur Elkartea

11.05
Igandea
10:00 AMURRIO
MIKOLOGIA ASTEA
Florida abesbatza
Santa Maria eliza

11.05
Igandea
16:30 TERTANGA
DOMEKERO
Kontzertu didaktikoa
Aiaraldeko musikariekin
Tertangako Etxea

11.05
Igandea
19:00 AMURRIO
JOSEBA IRAZOKI VS LE QUATTRO VOLTE
Sarrera: 5 euro
Burubio Kultur Elkartea

ANTZERKIA

11.04
Larunbata
20:00 AMURRIO
LA CIUDAD SITIADA
Sarrera: 4 euro
Amurrio Antzokia

11.11
Larunbata
20:00 AMURRIO
EL CIELO AHORA
Sarrera: 8 euro
Amurrio Antzokia

KIROLA

11.05
Igandea
9:30 OROZKO
TALOASKA
"Gorbeiako altxor etnografikoa"
Orozkoko Museoa

11.05
Igandea
7:30 AMURRIO
GOROBEL IBILALDIA
Juan Urrutia plaza (irteera)

11.12
Igandea
9:00 URDUÑA
MENDI MARATOIA
Foru Plaza (irteera)

11.12

UMEENTZAKO EKINTZAK

11.04
Larunbata
17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK
Txotxongilo artistikoak
La Milagrosa ikastetxea

11.10
Ostirala
18:00 ARETA
IPUIN KUTXA
Liburutegia

11.11
Larunbata
17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK
Puxikez egindako dinosauroak
Kultur Etxeko ludotekan

11.01
Igandea
16:30 TERTANGA
DOMEKERO
Sukaldaritza familian
Tertangako Etxea

BESTEAK

11.02
Osteguna
19:00 LAUDIO
HITZALDIA
"Zizarik gabe, paradisurik ez"
Zubiko Etxea

11.03
Ostirala
19:00 ARTZINIEGA
GURE HILEROKOA
Elkarrekin hausnartzeko topaketa
Herriko Taberna

11.03
Ostirala
19:00 OROZKO
II. FILM LABURREN LEHIAKETA
Lanen proiekzioa
Donibane aretoa

11.03
Ostirala
19:30 AMURRIO
ALFREEDO MOBILIZAZIOA
"Azkena izan dadila"
Juan Urrutia plaza

11.03
Ostirala
19:30 LAUDIO
HITZALDIA
"Errefuxiatuen egoera ekialde hurbilean"
Herriko Plaza

11.04

Hilekoari buruzko erakusketa eta topaketa prestatu dituzte

Hilekoari buruzko erakusketa prestatu du Otsati elkarteak Artziniegako Herriko Tabernan. Azaroaren 3ra arte egongo da ikusgai, eta topaketa egingo dute egun horretan, gaiaren inguruan "elkarrekin hausnartzeko". 19:00etan izango da zita.

Kartelera

DONIBANE ARETOA

Kakahuete operazioa 2

AZAROAK 5,
IGANDEA (Helduak 4 euro eta 12 urtetik beherakoak 2)

16:30

LAUDIOALDE ARETOA

Batman Lego

AZAROAK 5,
IGANDEA (3 euro)

17:30

DONIBANE ARETOA

Handia

AZAROAK 5,
IGANDEA (Helduak 4 euro eta 12 urtetik beherakoak 2)

19:00

AMURRIO ANTZOKIA

Capitán calzoncillos

AZAROAK 5,
IGANDEA (3.6 euro)

17:30

AMURRIO ANTZOKIA

Blade Runner 2049

AZAROAK 5,
IGANDEA (4.8 euro)

19:30

LAUDIOALDE ARETOA

Estados Unidos del amor

AZAROAK 10,
OSTIRALA (2 euro)

19:30

DONIBANE ARETOA

Tadeo Jones 2

AZAROAK 12,
IGANDEA (Helduak 4 euro eta 12 urtetik beherakoak 3 euro)

16:30

DONIBANE ARETOA

La Piel Fría

AZAROAK 12,
IGANDEA (Helduak 4 euro eta 12 urtetik beherakoak 2)

19:00

Foru Plaza (irteera)

11.12
Igandea
9:30 OROZKO
TALOASKA
"Desadostasunaren larreak"
Orozkoko Museoa

TAILERRAK

11.02
Osteguna
15:30 ARESPALDITZA
TREBAKUNTZA SAIOAK
Tokiko ekoizleentzako
Udaletxean (Izena emateko 945 399 013 telefono zenbakira deitu)

11.03
Ostirala
19:00 LAUDIO
MIKOLOGIA GASTRONOMIA
Zubiko Etxea

11.05
Igandea
9:30 ARRANKUDIAGA
AUTODEFENTSA FEMINISTA
Gizarte Etxea

11.08
Asteazkena
14:00 LAUDIO
"Zure telefonoa, sakelakoa baino askoz gehiago: smartphoneari etekina atera"
Tokiko Garapen Agentzia
(Izen ematea: 94 403 49 80)

11.09
Osteguna
14:00 LAUDIO
BIDEO-MARKETING
Tokiko Garapen Agentzia
(Izen ematea: 94 403 49 80)

11.09
Osteguna
17:30 LAUDIO
AHALDUNTZERAKO GIMNASIOA
Kultura Etxea (Izena emateko telefonoa: 94 403 48 50)

11.09
Osteguna
15:30 ARESPALDITZA
TREBAKUNTZA SAIOAK
Tokiko ekoizleentzako
Udaletxean (Izena emateko telefonoa: 945 399 013)

11.14
Asteartea
14:00 LAUDIO
"Ezagutu zure negozioaren ospe digitala"
Tokiko Garapen Agentzia
(Izen ematea: 94 403 49 80)

Herriko Plaza

11.04
Larunbata
LAUDIO
ERREFUXIATUEN ALDEKO JARDUNALDIA
9:00 // Mendi ibilaldi gidatua Santa Luziara
12:00 // Azoka solidarioa eta haurrentzako jolasak
13:30 // Komunikatuaren irakurketa eta dantzaldia
15:00 // Herri bazkaria
16:30 // Mus Txapelketa
18:00 // Zumba
20:00 // Pintxo-pote solidarioa eta txosna
21:00 // Longiers, Doctor Sax, Gwaya eta disko-dantza
Aldai Plaza

11.04
Larunbata
17:30 LAUDIO
MIKOLOGIA ASTEA
Aleen sailkapena
Mikologia Elkartearen Egoitza

11.05
Igandea
10:00 LAUDIO
MIKOLOGIA ASTEA
Erakusketa eta gastronomia
Herriko plaza

11.07
Asteartea
18:30 LAUDIO
MIKOLOGIA ASTEA
Sari banaketa
Zubiko etxea

11.07
Asteartea
19:00 LAUDIO
JAIEN ANTOLAKUNTZARAKO BILERA IREKIA
Udaletxea

11.08
Asteazkena
16:45 LAUDIO
AUTOESTIMUARI BURUZKO HITZALDIA
Kultura Etxea

11.08
Asteazkena
18:00 AMURRIO
HITZALDIA
"Esnatu barruan duzun irabazlea"
Refor enpresaldea

11.09
Osteguna
19:00 LAUDIO
HITZALDIA
Maskulinitate eta feminitate ereduak
Erabilera anitzeko aretoa

INFO +
aiaraldea.eus

Kultura

“Anorexia eta bulimiarekin bizitakoak kanporatzeko balio izan dit eleberri grafikoak”

Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

LEIRE MARTIN CURTO (ARRIGORRIAGA, 1993) ILUSTRATZAILEA DA. AMURRION BIZI DA GAZTETATIK. *YO TAMBIÉN QUISE SER COMO ANA Y MIA* ELEBERRI GRAFIKOA PLAZARATU DU, ANOREXIA ETA BULIMIA GAIXOTASUNAK JORRATZEKO.

Anorexia eta bulimia jorratzen dituzu eleberri grafikoan. Zerk bultzatu zintuen gai horiek lantzera?

Betidanik gustatu zait idaztea eta marraztea. Asko kostatzen zitzaidan -eta gaur egun ere bai- pentsatzen eta sentitzen dudana esatea, eta bi bide horiek barruan daukadan guztia ateratzen lagundu didate. Anorexia eta bulimiarekin egon nintzenean gaixorik, asko marraztен eta idazten nuen; modu horretan lortzen nuen bake pixka bat nire baitan.

Geroago, diseinu gradua egiten ari nintzela gai horri buruz hitz egin nuen irakasle batekin, eta oso ideia ona iruditu zitzaion. Beraz, laugarren mailan, gradu amaierako lana egin behar nuen urtean, eleberri grafiko bat osatzea pentsatu nuen nire bizipenak kontatzeko. Alde batetik, bi gaixotasun horiei buruzko informazio subjektiboa landu nahi nuen, dagoen informazio guztia oso objektiboa baita, eta jendeak ez du ulertzen zer den benetan sentitzen duena anorexia eta bulimiaren kontra borrokan ari denak.

Beste aldetik, bizi izandako guztia barrutik atera behar nuela sentitzen nuen, nire buruarekin ondo egoteko. Espero dut etorkizunean norbaiti lagundu ahal izatea nire bizipenak irakurtzeak. Bizitzen ari den infernu horretatik atera ahal dela erakutsi nahi dut, eta berriro bizi nahia berreskuratu daitekeela.

Bi pertsonaia nagusi ditu eleberri grafikoak: Ana eta Mia. Nor da nor?

Anak anorexia ordezkatzen du eta Miak bulimia. Izenak ez dira asmatuak, interneten hainbat blog eta web orrialde daude “pro-ana” eta “pro-mia” izenekin.

Zure buruan dituzun ahotsak dira, zer egin behar duzun eta zer ez esaten dizutenak. Horregatik sortu nituen bi pertsonaia horiek, momentu hartan nire buruan gertatzen zena, pentsatzen nuen guztia, hobeto azaldu ahal izateko, eta irakurleak hobetu ulertu dezan.

Zure esperientzietan oinarritu zara eleberria egiteko. Zer dute Ana eta Miak zure bizipenetatik?

Ana eta Mia gaixotasunak dira, eta nire kasuan, eleberrian haiek esaten eta egiten dutena da nire buruan gertatu zen barne borroka guztia. Hasieran lagunak ziren, nik ez nuelako ikusten benetan gertatzen zena, nire portaera ez zela normala. Uste nuen haiek esaten zutena egitean lortuko nuela zoriona, pozik egongo nintzela. Baina gero konturatu nintzen zerbait gertatzen ari zela, ezin nuela horrela jarraitu, nire burua suntsitzen nengoela. Bakean uzten ez zidaten bi deabru bihurtu ziren orduan.

Zer nolako harrera izan du eleberriak?

Oraindik ez dago argitaratuta, ea lortzen dudan noizbait kaleratzea. Liburuarekin orain arte egin dudana jendeari uztea izan da. Nire gurasoei, lagunei eta borroka hau nire ondoan bizi izan duen jendeari utzi diet lehenbizi. Geroago, nire senideen lagun batzuek eskatu didate eurentzat, edota ezagutzen dutelako norbait arazo horiek pairatzen ari dena. Gainera, nire psikologoak hitzaldi batean plazaratu du eta berarekin tratamenduan zeuden pertsona batzuei erakutsi die. Orain kopia bat Bartzelonako Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Elkartean dago, irakurtzeko eta haien iritzia jakiteko utzi diet.

Eleberri grafikoa eginda, internetera eta sare sozialetara egin dute salto pertsonaiek.

Masterra amaitzen nengoenean, irakasle batek proposatu zuen auto-promozio lan digital bat egitea. Hori dela eta eleberriaren pertsonaiak internetera igaro ziren. *Yo también quise ser como Ana y Mia* proiektuarekin jarraitu nuen, bi gaixotasunak ezagutarazten eta laguntza ematen, instagramen bidez gehienbat.

Hasieran ez nekien funtzionatuko zuen ala ez, baina lehen momentutik jendea nire kontua jarraitzen hasi zen, eta iruzkinak jartzen edota mezu pribatuen bidez hitz egiten. Ez soilik arazo hauek dituzten pertsonak, baita jende profesionala ere, eta horrek bultzatu nau jarraitzera, ikusten baitut benetan laguntzen duela.

Baduzu beste proiekturik esku artean?

Bai, nahiz eta ezin dudan esan amaituta dagoenik. Eleberria jendeari heltzeko bidea topatu nahi dut. Aldi berean, interneteko proiektuak abian jarraitzen du. Baina egia da gauza gehiago egin nahi ditudala gai honi buruz. Baditut ideiak, baina oraindik ez daude guztiz garatuta.

Oso zaila da mundu honetan sartzea, pixkanaka lortzen den zerbait da. Baina motibazioa ez zait falta, eta aurrera jarraituko dut, gauzak irudikatzen, eta ahal dudan heinean jendea laguntzen.

Kepa Sojo eta Sonia Paciosen lehen dokumentala, aretoetan ikusgai

Leongo Posada del Bierzo herrian grabatu dute filma. **Kuttuna Filmak**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Euren lehen dokumentala aurkeztu dute Kepa Sojo eta Sonia Pacios zinemagileek, Kuttuna Filmak ekoiztetxearekin. *Ronda de poniente* da pelikularen izena eta 18 minutuko iraupena du. Leongo Posada del Bierzo udalerrian grabatu dute. Herri berezia da Posada del Bierzo: 50eko hamarkadaren amaieran eraiki zuen gobernu frankistak, Espainiar Estatu osoan aplikatzen ari zen ureztatze-politikari jarraiki. "Herri-kolonia" bat zen, urtegi bat eraikitzean urperatutako Barcena del Río eta Posada del Río herrietako biztanleentzat eraikitakoa.

1961. urtean jai bat antolatu zuten herrian Frankori ongietorria emateko, diktadorea udalerria ofizialki inauguratzera gerturatzekoa baitzen. Harrera ekitaldi horren nondik norakoak jasotzen ditu dokumentalak, herritarren lekukotzak bilduta. Garaiko NO-DO albistegiko irudiak ere ikusi daitezke pelikulan. *Bienvenido Mister Marshall* filma ezagunarekiko paralelismo ugari ditu *Ronda de poniente* lanak, dokumentalaren egileen hitzetan. "Frankoren bisita pelikula horren tankerako zerbait izan zen. Bizilagunek lan handiak egin zituzten harrera prestatzeko, baina diktadorea ez zen ia gelditu ere egin".

Jaialdiz jaialdi

Hasi dira dagoeneko filma mugitzen. Valladolideko Nazioarteko Zinema Astean eta Arnedoko Octubre Corto lehiaketan proiektatu zen iragan astean. Arnedokoa da Goya sarietara kalifikatzeko balio duen jaialdietako bat.

Abendura arte luzatuko da Udazkeneko Multimedia Eskola

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Udazkeneko Multimedia Eskolen baitan "Euskarazko APPak" tailerra antolatu Basalarrinak. Bailarako hiru herritan eskainiko dute euskarazko aplikazioen inguruko ikastaroa. Saioei dagokienean, Artziniegan, Aiaran eta Laudion egingo dituzte euskarazko mugikor aplikazioen inguruko hitzaldiak. Laudiokoa azaroaren 16an izango da, 18:30ean udaletxeko Erabilera Anitzeko Aretoan; Luiaondokoa azaroaren 17an (Otueta Gizarte Etxean) eta Artziniegakoa abenduaren 15ean (Museo Etnografikoan). Tailerrak irekiak eta doakoak dira, ez da aurrez izena eman beharko.

Bestalde, Aiaraldea Gaur hedabidearekin elkarlanean, eskualdeko ikastetxe ezberdinetan Kazetaritza Eskolak eta Multimedia Rallyak egingo dituzte.

Kazetaritza eskolak

Bestalde, Aiarako ikastetxeetan Kazetaritza Eskolak hasi dituzte. Hala, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleek komunikabidea sortzen eta elikatzen ikasiko dute. Artziniegako Gure Arteko Ama eskolan eta Etxaurren Ikastolan ari dira ikastaroak jasotzen. Amurrioko eta Laudioko gazteek abenduan abiatuko dituzte Udazkeneko Multimedia Eskolak, Amurrioko eta Laudioko institutuetan zein Laudio Ikastolan gauzatuko dituzten "Multimedia rallyekin". Sorkuntza lan guztiak Komunitatearen Plazako gune berezian egongo dira ikusgai.

Euskarari buruzko dokumental bat plazaratu dute

Jose Angel Aramendi orozkoarra agertzen da filmean. **Wakaya Proiektua**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

"Euskara, Mariren hizkuntza" dokumentala plazaratu dute Nora Latatu, Ixone Collado eta Joseba Urrutyk. Hiru euskaraduni eginiko elkarrizketekin osatua dago filma: Jose Angel Aramendi orozkoarra, Aneguria rap abeslari bilbotarra eta Luca Ricci italiarra. Wakaya proiektuarentzako grabatu dute bideoa, hizkuntzen desagertzearen problematika jendarteratzeko helburuarekin. Aiaraldea.eus-en ikusi daiteke lana.

kultura

Azaroaren 19an izango da Amurrioko finalaurrekoa. **Euskal Herriko Bertsozale Elkartea**

Amurrion ospatuko dute Euskal Herriko Bertso Udalekuen 20. urtemuga

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Irailaz geroztik martxan da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Aiaraldeak ere jasoko du ekimena, azaroaren 19an hain zuzen. Bañueta kiroldegia izango da hitzorduaren lekuko. Saioa 17:00etan hasiko da Aintzane Irazusta Arzallusen gidaritzapean. Finalerdien lehen itzuliko puntuen arabera osatuko da bertsolarien seikotea. Sarrerak azaroaren 12ra arte egongo dira salgai www.bertsosarrerak.eus atarian 15 euroren truke.

Bestalde, Bertsozale Elkarteak azaldu duenez, 20 urte bete dituzte Euskal Herriko Bertso Udalekuek. "Urteurren biribila" antolatu dute Amurrion, hezitzaile, begirale, zuzendari zein sukaldarientzat bazkari eta guzti. Gaztetxean izango da topaketa 14:00etan.

200 begiraleren topaketa

"Udaz uda 114 txanda gauzatu dira, 207 begiralek eskutik eskura bultzada emanaz hain izaera berezia hartzera iritsi den ekimen zoroari", azaldu dute. Partaideei dagokienez, 3.500 haur eta gaztetxo inguruk bizi izan dute esperientzia bi hamarkadetan.

Ekimenaren jatorria 1998an dago, Hazparnen abiatu baitziren abenturak: "Hezitzaile, bertsolari eta guraso festazaleei esker egin da ibilbidea. Hala, bazkarian elkartzera gonbidatuta daude proiektuaren parte izan diren hezitzaile denak".

Aiaraldea Gaur hedabideak txapelketaren jarraipen berezia egingo du, ekimenaren babeslea baita beste hainbat komunikabiderekin batera. Gauzak hala, atarian zozketatuko ditu emanaldirako sarrerak datozen asteetan.

"Gertakarien" lehen topaketa egingo du Berakatz Zoparen Kofradiak azaroaren 17an

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Topaketa berezi bat prestatu dute Laudioko Berakatz Zoparen Kofradiako kideek datorren azaroaren 17rako. Herrian jazotako gertakariak izango dituzte hizpide. "Tartea izango dute herritarren inguruko edozein pasadizok, jaietako oroitzapenek eta igarotako garaietako istorio dibertigarriek", adierazi dute antolatzaileek.

Erabilera anitzeko aretoan izango da zita, 19:30ean. 21:30ak arte luzatuko da egitasmoa. Ohitura eta tradizio zaharrak berreskuratu eta mantentzea da Berakatz Zoparen Kofradiaren egiteko nagusia. Horren adibidea da sanrokeetan egin zuten berakatz zoparen erronka, jaki hori jendarteratzeari begira.

Mi yo fundamentalista liburua kaleratu du Alexandra Ainz soziologoak

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Alexandra Ainz Galende soziologo laudioarrak berriki plazaratu du liburua. *Amazon* internet atarian erosi liteke, 11.40 euroren truke.

Egilearen esanetan, erlijioa du ardatz lanak. Sinopsian adierazi duenez, hainbat fenomeno bildu ditu, "errespetuz, delikatuki landuta eta usteetatik eratorritako aurreiritziei bazter eginez". Fundamentalismoaren fenomenoaren baitan Ainzen bizipenak agertzen dira.

Laudioarrak unibertsitatean egiten du lan gaur egun. Erlijio fenomenoak ikertzen ditu nagusiki.

Harrera ona

Sare sozialetan aipatu duenez, esperientzia biziki onak eman dizkio liburuak: "Badirudi bizitza propioa hartu duela... Uko egin diet telebistako hainbat gonbidapenei -ez nintzateke eroso sentituko- baina asko eskertu dut".

Zaleei ere igorri die mezua argitalpena zabaltzeagatik, argazki ugari bidali baitizkiote, sare sozialetan ikus litekeenez. "Mila esker liburuagatik edo nigatik keinu edo hitz politak erakutsi dituzuen denei".

plubireportajea

ETXEBIZITZA ISOLATZEAK %50ETIK GORA AURREZTEN DU BEROKUNTZAN ETA KLIMATIZAZIOAN

eco ETXE NATURE

Zelulosazko isolamendu ekologikoaren bidez, etxebizitza bat isolatu daiteke egun bakarrean eta obrarik egin gabe, 1000 € inguruko kostuarekin.

Ecoetxe Nature Kuartangoko (Araba) bikote gazte baten enpresa da, zelulosa bidezko isolamendu ekologikoan espezializatua.

Etxebizitza bat zelulosarekin isolatzeak 1000 € baino pixka bat gehiago kostatzen du, egun bakarrean eta obrarik gabe egiten da eta klimatizazio zein berokuntzan %50 arte aurreztu daiteke.

Zelulosazko isolatzaileari esker etxeko tenperatura zortzi eta hamar ordu artean mantendu daiteke, alegia, bestelako materialen bidez baino askoz ere denbora gehiago. Etxebizitza bat klimatizatu edo berotzeak kostu bera dauka; ezberdintasuna da normalean etxea ordu batean edo bitan berotu zein hozten dela.

Alabaina, zelulosazko isolatzaileari esker, tenperatura askoz ere denbora gehiagoz mantentzen da, berogailua edo aire egokitua berriz ere piztu behar izanik gabe, Ecoetxe Nature-ren arabera.

Gainera, material transpiragarri batez eginda dagoenez, hezetasuna erregulatzen du eta etxeko erosotasun sentsazioa hobetzen du.

Babes termikoa eta akustikoa, kondentsazioaren kontrola eta suarengandiko babesa konbinatzen dituen isolatzaile bakarra da zelulosa, aplikazio eta material bakarraren bidez. Material honen beste abantaila bat da obra berrietan zein birgaitzeetan ezarri daitekeela, modu sinple, merke, eroso eta azkarrean. Egun bakarrean, obrarik egin gabe eta egoiliarrak desplazatu beharrik gabe, etxebizitza konbentzional bat osorik isolatu daiteke. Horman 2-3 cm inguruko zuloak egin, isolatzailea txertatu aireganbera bete arte eta zuloak berriz ere estaltzen dituzte, enpresakoen arabera.

Etxebizitza konbentzional bat zelulosaz isolatzeak 1000 € inguru kostatzen du; inbertsio hori bizpahiru urtean erraz amortizatzen da. Ecoetxe Nature-tik diotenez, zelulosazko isolatzailea merkatuko isolatzailerik lehiakorrena da. Frantzian eta Alemanian, esaterako, 30 urte baino gehiago daramate aplikatzen. Gainera, isolatzearen bidez, eraikinen energia-eraginkortasuneko ziurtagirien kalifikazioa hobetuko da.

ENERGIARIK MERKEENA ETA BERDEENA, KONTSUMITZEN EZ DENA DA.

ISOLATZEA AURREZTEA DA

Los Huetos Hiribidea 50, 17. pabiloia, Gasteiz
www.ecoetxenature.com 680 488 709 / 629 075 919

Kirola

"Euskal Selekzioarekin jokatzeko aukerak ditudala uste dut"

OLAITZ AZKUE (URDUÑA, 2002) CD URDUÑAKO JOKALARIA DA. DUELA GUTXI EUSKAL SELEKZIOAN 16 URTETIK BEHERAKO KATEGORIAREKIN ENTRENATZEKO DEIA JASO DU.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Nolakoa izan zen Euskal Selekzioarekin entrenatzeko deia jaso zenuen unea?

Ez nuen batere espero. Ama deitu zuten eta ni bere ondoan nengoen une horretan, orduan ohartu nintzen. Oso pozik jaso nuen albistea.

Nik bezala, nire taldeko lagunek ere oso pozik jaso zuten berria, asko animatu naute.

Aukerarik ikusten duzu selekzioarekin partidarik jokatzeko?

Oraingoz, entrenamendu bat egiteko deitu naute. Urriaren 3an egin nuen saio hura Euskal Herriko beste hainbat neskekin batera.

Abenduan Espainiar Estatuko selekzioen arteko txapelketa bat ospatuko da. Bost entrenamendu saio deitu ditu Euskal Selekzioak, futbolari desberdinekin, txapelketa horretarako taldea osatze aldera. Gustatuko litzaidake Euskal Selekzioarekin jokatzea, aukerak baditudala uste dut.

Aurretik, egin al duzu inoiz entrenamendurik Euskal Selekzioarekin?

Ez, lehenengo aldia izan da hau. Bizkaiko Selekzioarekin, ordea, hainbatetan batu naiz. Bi txapelketa irabazi ditut elastiko horrekin, eta kontzentrazioetan parte hartu dut. Bertan ezagututako lagun askorekin topo egin dut orain Euskal Selekzioan.

CD Orduñari dagokionez, nola daramazue liga?

Bi partida jokatu ditugu soilik. Egia esan ez gara oso ondo hasi, ez ditugu oso sentsazio onak. Partida bat berdindu eta bestea galdu egin genuen. Baina, hala ere, gogotsu gaude; eta emaitza onak lortzeko gai ikusten dugu gure burua.

Nola hasi zinen futbolean jolasten?

> **"Pixkanaka, ahalegin guztien fruituak jasotzen nabilela ikusten dut, Euskal Selekzioaren azken dei hau adibidez"**

Zazpi urte daramatzat CD Orduñan. Beti gustatu izan zait futbola, eta segituan animatu nintzen. Egia esan, asko igarri dut urte guzti hauetako garapena, asko hobetu dudala uste dut. Hasieran ez neukan konfiantza askorik nire buruarengan; baina pixkanaka, esfortzu guztien fruituak jasotzen nabilela ikusten dut, Euskal Selekzioaren azken dei hau adibidez.

Zaila da emakume eta futbolaria izatea?

Orokorrean bai. Nire kasuan, pertsonalki, ez da zaila izan, baina izan ditut gora beherak ere.

Nik 12 urte bete arte mutilekin batera jolastu izan dut eta egoera asko ez dira atseginak izan. Nirekin batera jolasten duen koadrilako lagun batek asko lagundu nau, asko lagundu diogu elkarri aurrera egiten.

Oraindik ere desoreka handia dago gizonezko eta emakumezkoen futbolaren artean. Oso lan gutxi egiten da desoreka horiek ezabatzeko.

Bi laudioar podiumean Miranda de Ebroko Openean

Larunbatean Laudioko Tae Kwon Do taldeko gazteek parte hartu zuten Miranda de Ebro Hiriko XXXI. Open nazionalean eta bik domina ekarri zuten herrira. Gentza Astobizak brontzezko domina eskuratu zuen 41 kilo baino gutxiagoko kadete kategorian eta, bestetik, Juanjo Okerazank zilarrezko domina lortu zuen zilarrezko domina, hau da 2. postua, 57 kilo baino gutxiagoko kadete kategorian.

Aiarako Txirrindulari Elkartea garaile Arabako Challengean

Arabako Taldekako Challengea irabazi du Aiarako Txirrindulari Elkarteak, kadete kategorian. Urriaren 21ean jaso zuten saria elkarteko kideek, Arabako Txirrindularitza Federazioaren eskutik.

Modu horretan eman diote amaiera aurtengo denboraldiari. "Bukaera ona" izan da, elkarteko kideen hitzetan.

Josu Albizua garaile Colindreseko ziklokrosean

Luis Valle

Lehen postua eskuratu zuen Josu Albizua kirolari aiaraldearrak Colindreseko (Kantabria) ziklokrosean, 23 urtetik beherakoen kategorian.

MENDI LASTERKETA

Legution aritu ziren lehian Aiaramendi trail taldeko hainbat kide

Trail taldeko bost kideak, Legution. **Aiaramendi**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Legution ospatu zen iragan urriaren 22an "Jarindo Albertia" mendi lasterketako VI. edizioa. Aiaramendi trail taldeko hainbat korrikalarik hartu zuten parte bertan beste 300 korrikalarirekin batera. 16 kilometro luze eta 630 metro positiboko desnibela zuen lasterketa izan zuten kirolariek aurretik.

Izaro Olivares gailendu zen emakumezkoen proban, lehenengo postua lortuz. Aritz Iturribarriak 5. postua lortu zuen, gizonezkoen kategorian, ordu bete eta hamabi minututan osatu zuen ibilbidea. Oinatz Manterola, aldiz, 65. postuan sailkatu zen, ordubete eta hogeita bost minututan bukatu zuen lasterketa.

14 eta 17 urte bitarteko gaztetxoek, ordea, Jarindo Albertia Gazte-Trailaren lehenengo edizioa ospatu zuten. Aiaramendi taldeko kide gazteenek bertan hartu zuten parte, bederatzi kilometroko ibilbidea osatuz.

MENDIZALETASUNA

Gaur amaitzen da XXX. Gorobel Mendi Ibilaldian izena emateko epea

Gaur -azaroak 2- da Gorobel Mendi Ibilaldian izena emateko azken eguna. Mendikolagunak.eus atarian dagoen formularioa bete behar da horretarako. Igandean izango da martxa, 7:30ean Amurrioko Juan Urrutia plazatik abiatuta. 36 kilometroko ibilbidea egin beharko dute parte hartzaileek.

ZIKLOKROSA

Inoiz baino txirrindulari gehiagok hartu dute parte Laudioko XXX. Nazioarteko Ziklokrosean

Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

Borobila izan da aurtengo Laudioko Nazioarteko Ziklokrosa. Ia 600 txirrindularik hartu zuten parte Ellakuriko zelaiak hartu zituen norgehiagokan. Felipe Orts gailendu zen lasterketan, baina eskualdeko zenbait txirrindulari ere nabarmendu ziren: Luisa Ibarrola 2. izan zen, Josu Isasi 3. Master 40 kategorian eta Mikel Beraza 4. kadeteetan.

Ellakuriko zelaietan egin zen norgehiagoka. **Endika Oregui**

kirola

"Eskualdean antolatzen den lehenengo mendi-maratoia izango da Urduñakoa"

ANARTZ GONZALEZ PUEYO (URDUÑA, 1990) GUALDETXU MBTT-KO KIDEA DA. AZKEN HILABETETAN BURU-BELARRI DABIL URDUÑAKO LEHENENGO MENDI MARATOIA ANTOLATZEN.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Nondik dator mendi maratoi bat antolatzearen ideia?

Duela bi urte, trailaren gorakada ikusirik, Mendi-Bizikleta eta Trail talde bihurtu genuen Gualdetxu. Geroztik trailaren inguruan zer edo zer antolatu nahian ibili gara.

Ideiak biltzeari ekin eta ohartu egin ginen inguruan astebururo antolatzen zirela trail lasterketak baina ez zegoela mendi maratoirik. Aukera berri eta erakargarria izan zitekeela baloratu genuen.

Aiaraldean antolatzen den lehenengo mendi maratoia da. Euskal Herrian ez dira asko antolatzen; ez dakizkit zifra zehatzak, baina ez dira hamar baino gehiago izango.

Nolakoa izango da ibilbidea? Edozeinek hartu dezake parte?

Mendi maratoiaz gain beste zer edo zer eskaini behar genuela uste genuen. Azkenean hiru lasterketa antolatu ditugu: mendi maratoia bera, 42 kilometroko ibilbidearekin; 25 kilometroko beste lasterketa bat; eta, azkenik, 10 kilometroko mendi lasterketa, ibilbide motzak eta azkarrak gustuko dituztenentzat.

Oso zeharkaldi ikusgarria prestatu dugula pentsatzen dut, bai korrikalarientzat, baita ikusleentzat ere. Parte-hartzaileek hiru aldiz igo beharko dute Gorobel mendilerroa Fraileburu, Bedarbide eta Paso Maloko igoeretatik.

> **"Azaroaren 12an izango da norgehiagoka. Oso ibilbide ikusgarria prestatu dugula uste dut"**

Hilabete baino gutxiagoren faltan, zer nolako aurreikuspena egiten duzue?

Oso positiboa. Aspaldi zabaldu genuen inskripzio epea; eskualdean horrelako zerbait antolatzen zen lehenengo aldia izanik denboraz lantzea zen egokiena. Parte-hartzaile kopuru maximo bat jarri genuen antolatuko ditugun hiru lasterketetarako: 150 korrikalari lasterketa bakoitzeko. Egun, hilabete baino gutxiago falta denean 100 pertsona baino gehiagok eman dute izena maratoian lasterka egiteko. Oso pozik gaude, harrera oso ona ari da izaten.

Korrikalariez gain, ikusleen aldetik ere espektatibak onak dira?

Uste dugu baietz. Mendi maratoiak ez du, soilik, korrikalariengan sortu ilusioa. Lehen esan bezala, ibilbidea ikusgarria izango da, eta lasterketa jarraitzeko txoko asko egongo dira. Bereziki polita izango da Bedarbideko igoera.

Mapa bat prestatzen gaude ikusleen artean banatzeko. Bertan maratoia ondo ikusi ahal izateko puntuak markatuko ditugu, baita inguruko aparkalekuak ere.

Urduñako herritarren partetik laguntza jaso duzue maratoia antolatzeko.

Bai, zalantzarik gabe. Urduñako hainbat herri-eragilerekin jarri gara harremanetan lanetan laguntzeko: Anoa postuetan, bidegurutzeak markatzen... Prestasuna ikaragarria izan da. Gualdetxu MBTT-k antolatutako bizikleta-martxa edota mendi -duatloian bezala, laguntzeko prest azaldu dira herritarrak

Udalak ere asko lagundu digu, beharrezkoak genituen baimenak lortzen batez ere. Gorobel mendilerroa eremu babestua da eta maratoiak Araba, Bizkaia eta Burgoseko lurretatik zeharkatzen du zonaldea.

MENDI-DUATLOIA

Zuriñe Frutosek 8. garaipena lortu du mendi-duatloien zirkuituan

Aurtengo denboraldian Frutosek irabazten duen zortzigarren duatloia izan da. **Z.F.**

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Urriaren 21ean ospatu zen Amasako Duatloia, Euskal Herriko VII. mendi-duatloi txapelketa. 155 korrikalarik hartu zuten parte bertan. Zuriñe Frutos gailendu zen emakumezkoen kategorian, iaz lortu zuen postuari eutsiz. Ordu bat eta berrogeita hamabost minutu behar izan zituen ibilbidea osatzeko.

Artziniegako kirolariak aurtengo denboraldian irabazten duen zortzigarren mendi-duatloia izan da Amasakoa.

Euskal Herriko mendi-maratoien zirkuituaren barruan 10 mendi-duatloi daude. Frutosek dagoeneko zortzi irabazi ditu; adierazi duenez, zirkuitua bukatzeko falta diren bi lasterketak irabazteko indarrarekin ikusten du bere burua.

MUGENDOA

Alejandro Cruzek irabazi du Madrilen Nazioarteko Opena

Alejandro Cruz, txapelketa irabazi ostean. **Wamai Euskadi**

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Arrakastasua izan da Alejandro Cruzen parte hartzea Madrilgo Bushikan Nazioarteko Openaren IV. edizioan. Lehen postua lortu du Light Contact kategorian eta brontzezko domina, aldiz, Semi Contact modalitatean. Modu horretan, etorkizunean izango dituen nazioarteko erronkei indarrez heldu ahalko die kirolariak.

Amurrioko Meyro Mugendo eskolako senseia (maisua) da Cruz.

Herriko plaza

Ainhoa

Zorionak! Segi bazterrak astintzen, nahasten eta sorgintzen! Muxu handi bat!

Lagunak

Txese

Zorionak txeserito!! Laster ospatuko dugu zure itzulera garagardo artean!

Esne Potaken politburoa

Marifeli

Zorionak eta urte askotarako! Segi ezazu orain bezain belarri prest, animo! Muxu bat!

Familia

Koldo

Zorionak Koldo! Poliziak kotxea eraman du, badakizu zeozer?

Mihail

_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera edo argitaratu zuzenean Aiaraldea.eus atarian.

Denborapasak



❖ BMX kirolari amurrioarra

ERRAZA

			3	5		8	4	
		3	7		2		6	
	6		9	8	4		3	
6					5			
		4	2	3	1	7	8	
3				6	7	5	2	
	3		5	2			7	4
5	2		6		3			8
	9				8			

ZAILA

		7		3		2		8
		2			5		7	4
4	3	6			8			
								5
		8			2			
2		4		6				
		5	7	8	9			3
	7				4	8		
	4	3		5				2

		9		6	4			
3	4		7				8	
			9	4	8			
9	3	6	5	2	7			
7								5
5		2	8	7	1		6	
	6					7	5	
		3			5	8	2	

			4					
		6	9		5			3
7								8
6								
		3				8	2	5
5			2	7				6
				5				
	8			3		4		
	4	7					8	

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Eskelak

Argitaratu Aiaraldea Egunkarian eta webgunean nahi duzun eskela edo agur mezua.

Urteurrenak
Oroigarriak
Esker-onak
Eskelak

Informatu **eskelak@aiaraldea.eus**-en

FUNERARIA
L A R R A Z
E H O R Z T E T X E A

Zozketa

JOSEBA IRAZOKIREN KONTZERTUA IKUSI NAHI?

Amurrioko Burubio kulturguneko kontzertuez gozatu nahi? Parte hartu **www.aiaraldea.eus web** atarian.

Aiaraldea txiki

Arrotzak

Okindegi-gozotegietan saltzen ez diren zortzi elementu daude hemen. Zeintzuk dira?

DOMINO ZATIA



Emaitzak





ZATIA

Bete itzazu fitxetako espazio zuriak, domino zati hau zuzena izan dadin.



SUDOKU KOLORETSUA

Sudoku hau ongi osatzeko, kolore egokiaz margotu beharko dituzu biribil zuriak. Gogoratu kolore bakoitza behin bakarrik ager daitekeela zutabe bakoitzeko, lerro bakoitzeko eta sei laukik osatzen duten area bakoitzeko.

Hauek dira aukerak:



ITZALA

Zein da txori-izugarri honen itzal zuzena?

Pareak

Zein da behin bakarrik agertzen den elementua?

Kontra

Aiaraldetik mundura

Sascha Kohlmann

Ruben López Ranero

JAIOTERRIA
AMURRIO (1985)

BIZILEKUA
BERLIN (ALEMANIA)

BIDAIAREN XEDEA
SERIGRAFIATZAILE GISA LAN EGITEA.

“Berlin bezalako hiri batean erraza da serigrafiaz bizitzea”

Urteak daramatza Ruben Lopez amurrioarrak Berlinen. Serigrafia lanak (kartelak, kamisetak...) egitetik bizi da, Brookesia Estudio egitasmoarekin. Hiriko serigrafia tailer batean ere dabil lanean, beste hainbat artistekin batera.

Serigrafia tailer batean egiten duzu lan, Berlinen. Nola iritsi zinen bertara?

Serigrafia tailer kolektibo batean nago, Czentrifuga izenekoa. Taldeko kideak ezagutzen nituen, Berlinen bizitzen egon nintzen beste garai batetik. Horregatik, erraza egin zitzaidan tailerrean sartzea.

Nola funtzionatzen du taldeak?

Asanblada bidezko funtzionamendua du. Lanak egin behar ditugu tailerraren alokairua ordaintzeko, eta biltzen dugun diruaren beste zati txiki bat guretzako gordetzen dugu.

Horrez gain, bakoitzak bere proiektu propioak ditu, zeintzuen bidez diru-sarrerak lortzen ditugun baita ere.

Zer motatako lanak egiten dituzue?

Aiaraldean egiten nituen lanen antzekoak: mota guztietako euskarrietan inprimatzen dugu, pertsona, kolektibo edota musika taldeentzako, gure ideia politikoen barruan betiere.

Serigrafiaz gain bestelako lanik egiten duzu?

Momentuz serigrafia eta diseinu grafikoa egitetik bizi naiz, baina egiten ditut baita beste hainbat lantxo ere, hilabetearen amaiera errazagoa egiten dutenak.

Zaila da marrazkigintzatik bizitzea Alemanian?

Berlin bezalako hiri batean nahiko erraza da, egia esan. Azoka asko daude, eta jendeak beste pentsamolde bat du erosterako orduan, zabalduago dagoelako merkatuetan erosteko ohitura. Turismo asko dago baita ere, erraztasun handiagoak daude.

Berlinen Aiaraldean baino aukera gehiago daude serigrafiaren munduan aritzeko, beraz?

Alemanian nahiko mugimendu aktiboa dago, eta Berlin bezalako hiri handietan nahiko oparoa da serigrafiaren kultura. Aiaraldean baino aukera gehiago daude, errazagoa da bizitza aurrera ateratzea.

Zer ezberdintasun ikusi dituzu Aiaraldea eta Berlinen artean?

Berlin Europako hiriburua dela esan daiteke, eta Amurrio Aiaraldeko herri txiki bat da. Erraz imajinatu daitezke ezberdintasunak.

Ondo moldatzen zara hizkuntzarekin?

Alemana da oinarrizko hizkuntza, baina biztanleen ia % 90ek daki ingelesa. Toki batzuetan gazteleraz ere mintzatu zaitezke. Alemanana hizkuntza zaila da, baina espero dut hemendik urte batzuetara hitz egiteko gai izatea.

Zerk bultzatu zintuen Berlin aukeratzera?

Bertan bizi behar nuen Brookesia Estudio proiektuarekin salto handiago bat egiteko, eta emaitza positiboak ekarri dizkit horrek. Hemengo garagardoaren kalitatea ere bada kontuan hartzeko zerbait (barreak).

BERLIN

DESKRIBAPENA
Alemaniako eta Europa erdialdeko hiririk populatuena da. Historia gorabeheratsua izan du. 1961tik 1989ra bitartean harresi batek bitan banatu zuen hiria, Gerra Hotzaren sinbolo esanguratsuenetariko bat bilakatzera arte.

AZALERA
891,68 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
3,4 milioi biztanle.

HIZKUNTZA
Alemana.

BITXIKERIAK
Mugimendu artistiko, sozial eta politiko askoren habia da Berlin. Europako mugimendu kultural askoren jaioterria izan da hiria.

Argitaratzailea: Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behea. Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko
URDUÑA ORDUÑA
ARTZINIEGAKO UDALA
ARRANKUDIAGA ZOLLO UDALA
Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala
Arakaldo
OKONDOKO UDALA
LAUDIO UDALA AYUNTAMIENTO DE LLODIO
AMURRIO
Graf!k Telleria 2 01400 Laudio (Araba) 94 672 65 43 info@grafiksarea.com
Arabako Foru Aldundia
JEZ Arantzar, z/g LAUDIO (Araba) 946 721 200 // infor@jez.es
BASALARRINA euskal TOPAGUNEA
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA